

IRRIÑO BATEN BILA

Naia Aiestaran Iparragirre

Beasain

Jendea hara eta hona dabil, erosketetarako orgak bete eta bete. Merkataritza gunea oso handia da, eta Gabonetako apaingarriz josita dago. Pasillo guztiek bat egiten duten gunean, gabonetako pinu erraldoi bat ipini dute, argi koloretsuz eta edergarriz jantzita.

Nire orgatxo xumeari tiraka, jostailuen sailera iritsi naiz. Aho zabalik nago, ume baten moduan. Bospasei pasillo egongo dira, jostailuz beteta. Lehendabizi, mahai-jokoen eta joko elektronikoen pasilloa igaro dut; bigarren pasilloan, bizikletak, patineteak, motorrak eta horrelakoak ikusi ditut. Eta hirugarren pasillora iritsi naizenean, txundituta gelditu naiz; begiak itxi eta nire Daniela ikusi dut, arrosa koloreko panpin horiekin guztiekin jolasean. Hara! Hementxe dago: “Panpina dantzaria!”. Telebistako iragarkietakoa baino ederragoa iruditu zait. Oso polita da: ile hori-horia du, begitza batekin bildua; begi urdin-urdinak ditu, Danielarenak bezalakoak; eta ia aurpegi guztia hartzan dion irribarre erraldoi bat dauka. Soinean

daramatzen jantziak ere politak dira oso: soineko arrosa bat, kapela gorri bat eta bota urdin-urdinak.

Nire alabaren eskuetan imajinatzen dut. Zenbat poztuko litzatekeen horrenbeste amestutako panpina bereganatuko balu! Buelta eman diot panpinaren kaxari: 44 euro. Diru asko da, gehiegi. Ezin dut horrenbeste diru balio duen panpina bat erosi. Diru horrekin, datozen bi asteetarako janariz beteko nituzke gure sukaldeko armairuak. Udaletxeko gizarte-laguntzailea konturatuko balitz horrenbeste diru ordaintzen dudala panpin batengatik, betiko ukatuko lizkidake hilerok jasotzen ditudan 300 euroak. Ez, ez, ezin dut erosi.

Janariaren sailera noa, benetan behar dugun hori erostera. Makarroien aurrean nago, marka zuriko makarroien aurrean: makarroi-poltsa aurreko astean baino 50 zentimo garestiago dago. Baina, eskerak, eskaintza berezi bat ere badago: 2 makarroi-poltsa erosita, hirugarrena doan!

Panpin hori burutik kendu ezinda nabil. Bart gauean, burmuinean iltzatuta gelditu zitzaizkidan Danielak ipuina irakurri ostean esan zizkidan hitzak: “Amatxo, badakit zer egin: Olentzerori eskatuko diot horrenbeste gustatzen zaidan panpina hori. Badakit diru asko balio duela, baina Olentzerok ekar diezadake”. Zer egin dezaket? Nola esango diot sei urteko alabari Olentzerok ez duela gure etxera ekarriko horrelakorik?

Esnekien pasilloan nago. Jogurtak atzean utzi ditut, guretzat luxua da-eta jogurtak erostea; etxean egiten ditut. Esne-kaxa bat hartu behar dut.

Marka da, gero: litroa 10 zentimo garestiago dago. Izugarrizko amorrua eman dit: 10 kartoiko esnekaxa, aurreko astean baino euro 1 gehiago ordaindu beharko dut.

Banoa, berriro ere, denda handi honen albo batera, ume guztiek gogoko duten eremura. Begien aurrean daukat “Panpina dantzaria”. Gogoan dut Olentzerok Nancy zoragarri hura ekarri zidan Eguberri-eguna. Egunak eta egunak eman nituen haren ile hori distiratsua orraztu eta orraztu, nire ametsetako munduan, zoriontsu.

Burura behin eta berriz datorkidan ideia arraro bat uxatu nahian nabil. Nola egingo dut nik hori? Gurasoek bizitzari buruz erakutsi zidaten guztia hankaz gora jarriko nuke. Ez, ezin dut egin. Asmatuko dut zerbait Danielari esateko, eta kenduko diot burutik panpin zoragarri hori.

Buelta eman eta banoa, berriro ere, elikagaien sailera. Orgatxora begira nago: makarroiak 2 euro kostatu zaizkit, eta esnea 5 euro; guztira: 7 euro. Diru-zorrora daramatzat eskuak: 10 euro ditut. Hiru euro dauzkat gaurko afarirako: arrautzak eta fruta pixka bat erosiko dut. Dozena bat arrautza euro 1 eta 40 zentimoan dago; hartu egingo dut, nire etxe ondoko denda txikian baina merkeago daude-eta. Sagarrak falta zaizkit orain; kiloa euro 1 eta 60 zentimotan dago. Sei hartu ditut, kilo bat eskas.

Jostailuen sailerantz abiatu naiz berriro ere. Barne-borroka etengabe batean nago: gaizki dago egin nahi dudana, baina gaizki dago, halaber, Danielari irriño bat eragin ezin izana. Bihotzak

gauza bat esaten dit eta buruak beste bat. Bidean, emakume dotore batekin egin dut topo, erosketen orga gainezka zeukan emakume dotore batekin, organ zeraman hori guztia ordaintzeko inolako arazorik izango ez duen emakume dotore batekin. Nik buruan bueltaka dudan hori baino gauza askoz larriagoak egiten dituzte egunero-egunero makina bat aberatsek, inolako beharrik izan gabe.

Berriro ere, eskuetan dut panpina. Erabaki dut: lapurtu egingo dut. Panpina kaxatik atera, eta nire poltsan sartu dut. Ez dut uste inork ikusi nauenik. Banoa, berriro ere orgatxoari tiraka, ordaintzeko kutxetarantz.

Ilararik txikiena duen kutxaren parean jarri naiz. Eskuak dardarka sumatzen ditut, eta gero eta arinagoak dira nire bihotz-taupadak. Kutxatik pasatzean alarmak jotzen badu? Damutzen hasia naiz, baina jada ez daukat atzera egiterik. Nire txanda da. Irribarre egin dit kutxako emakumeak: makarroiak, esnea, arrautzak, sagarrak... Nire esku dardartiak 10 euroko billetea utzi du kutxaren gainean, eta hamar zentimoko txanpon bat itzuli dit, hasierako irribarre berberarekin. Nire bizitzako momenturik txarrena pasatzen ari naiz. Iruditzen zait, une batetik bestera norbaiten eskua sentituko dudala sorbaldan. Baina ez, banoa, poliki-poliki merkataritza gunea atzean uzten ari naiz. Okerrena pasa dela uste dut.

Eta, orain, onena dator: Danielak, panpina dantzaria eskuetan hartzen duenean, aurpegian izango duen irriñoa.